

Kirolari gazteentzako dekalogoia



1 Arauak

Errespetatu itzazu kirol-arauak eta elkarbizitza-arauak. Horrek eragina izango du zure kirol-garapenean eta zure garapen pertsonalean.

2 Lehiakidea

Errespetatu zure lehiakidea. Ez da zure etsaia, baizik eta kirol-eremuko zure aurkaria bakarrik.

3 Uneak

Gozatu entrenamenduetan zein lehiaketetan; une guztiak dira garrantzitsuak.

4 Ezkutukoa

Askotan, gaizki sentitzen garenean, indarkeria motaren bat dago ezkutuan. Kontatu norbaiti zerk sentiarazten zaituen gaizki, heldu batek egoera berrikusi eta bidera dezan.

5 Garbi jokatu

Izan zaitez txalotua zure kirol-jarrerarengatik eta ez zure lorpenengatik soilik. Balio handiagoa du bizitzan.

6 Errespetua

Errespetatu kirol-arbitroen edo entrenatzaileen erabakiak.

7 Agurra

Lehia hastean eta amaitzean, eskaini aurkariari bostekoa eta agurra.

8 Umiltasuna

Ospatu garaipena umiltasunez, errespetatu aurkaria.

9 Galtzea

Partida galtzeak zerbait garrantzitsua irakatsiko dizu, nahiz eta momentuan ez ikusi. Zaindu zure haserrea edo amorrua une horietan.

10 Taldea

Taldeak kirolari hobea egiten zaitu. Lagundu zuk ere taldekideei edo lagunei.

